

12. GAIA: ENBRAGEAK

Erabaki ezazu baieztapen bakoitza egiazkoa ala faltsua den:

- 1) Enbrageak erabiltzen dira martxa-aldaketak egiteko, ardatz higiarazlea kargarekin abiarazteko edo ardatz erresistentea momentu eragilerik gabe azeleratzeko.
- 2) Marruskadura-enbrageen desabantailetakoa bat da bero kantitate handia sortzen dela enbragatze-prozesuan gertatzen den marruskaduraren ondorioz.
- 3) Erabilitako enbrage batean, diskoa gastatuz joaten da, ukipen-gainazalaren puntu guztietan higadura-egoera uniformera iritsi arte. Beraz, hau betetzen da:

$$p \cdot r = \text{uniforme}$$

- 4) Enbragea presio uniformearen hipotesiarekin diseinatzeak enbragea gairidimentsionatzera darama, eta, beraz, hipotesi kontserbadoreagoa da higadura uniformekoa baino.
- 5) Enbrage konikoa disko enbragearekin alderatzen bada, aplikatutako F indar bererako, tamaina bererako (D, d) eta μ marruskadura-koefiziente bererako, enbrageak $1/\sin\alpha$ bider marruskadura-momentu handiagoa garatuko du.
- 6) Enbrage koniko batean, batetik, komeni da α handia izatea garatutako pareta handia izan dadin, baina, bestetik, oso balio txikia izateak autorraztea eragin dezake. Ondorioz, erdi-mailako balioak izaten ditu.
- 7) Esan daiteke enbrage zentrifugoak enbrage automatikoak direla, enbragatzea/desenbragatzea abiadura jakin batean gertatzen baita automatikoki.
- 8) Ukipen positiboko enbrageen desabantaila da abiadura txikian eta parerik gabe akoplatu behar direla, hortzetan kalteak eragin ditzaketen bat-bateko inpaktuak saihesteko.
- 9) Marruskadura-enbrage batean, zenbat eta marruskadura-momentu handiagoa garatu, orduan eta azkarrago enbragatzen da, baina beroak denbora gutxiagoan sortzen du. Hori dela eta, zailagoa da hura kanporatzea, eta aukera gehiago daude enbragea kaltetzeko, temperatura handiak iristen baitira.
- 10) Enbrageak garatutako momentuak haren bidez transmititu nahi den momentua baino txikiagoa izan behar du, bestela enbrageak irrist egingo baitu.